

# ELHUYAR

---

R. S. V. A. P. -en Zientzi eraskina

---

ZUZENDARIA: *Luis Bandres*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Círculo de San Ignacio. - San Marcial, 26, bajo. San Sebastián*

---

## U. E. U. : eginak eta egitekoak

Burutu berria da, Lapurdiko Uztaritzen, Udako Euskal Unibertsitatea; aurtengoa, abuztuaren bigarren hamabostaldian eratua, laugarrena izan da.

Bertan jasotako zenbait irizpide agertu nahi genuke hemen, labur bilduz bederen, eta hurrengo urtekoari buruz gure uste-asmoak plazaratu.

Aurtengo egitaraua, jadanik ohizkoa denez, bitan partitua izan da:

—Goizetan gai orokor-informatiboak, edozein jakintzasailen ikuspegitik abiatuz hastapen ezagumenduak eskeintzeko prestatuak.

—Arratsaldez mintegiak, nork bere gogozko gaia sakonago landu asmoz burutuak.

Egitarau honek badu, bere ukaezineko alde onekin batera, oztopo bat ere: ikasleak ikusle bihurtzeko arriskua, ikastera ordez soilik entzutea bultzatzea alegia. Ezin pentsa liteke, noski, bide honetatik lortzen den gure kultur gaietarako hurbilketa guttiestekoa denik; baina edozein langintzari, denik apartenekoari ere, helburu batzuk lotu behar zaizkio ezer funtsezkorik lortu nahi bada: helburu konkretuak, aldenik alde mamitu ahal izateko modukoak.

Orain arteko lanak, gure ustez, helburu bi bete ditu zintzoenik: hizkuntza ohi ez bezalako gaiak erabiliz egungo gizarte beharretara egokitzzea, eta gaiok normaltasun osoz erabiliko dituen irakaslegoa prestatzen hastea. Bada ordea beste puntu bat, degoenekoz hirugarren helburutzat hartu beharrezkoa: ikastoletan diharduen irakasle jendeari oinharrizko formazio gaiez ikastaldi praktikoak eskeintzea. Honek zera esan nahi du, egunoro jakineko ordu berdinetan asignatura ugarizko klaseak eman behar liratekeela.

Badirudi, azken larunbatean idazkaritzak izan duen lehen bileraren ondotik, posible dela honelako zerbaitetan pentsatzea. Finkatu beharrik dago, halere, nolako klaseak eman, zer mailatan ihardun, titulazio baten beharrik dagoen ikusi, eta beste zenbait puntu.

Guztion onerako, U.E.U.k badu aurtendik aurrera, urte osoz hartaz arduratuko den pertsona, Martin Orbe bizkaitarra.

Ezin ahantz bait liteke, unibertsitatea gorpuzten joan den eran, geroz eta zama astunagoa leporatu izan zaiola IKAS elkarteari, eta batez ere bertako Manex Goihenetxe idazkari saiatuari.